

# **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure enpresaren funtsezko baliabideek gure bezeroen segmenturako balio-proposamen erakargarria garatu eta eskaintzeko aukera ematen digute. Baliabide horiei esker bezeroekin dugun harremana hobetu eta gure negozioan diru-sarrerak sortu ditzakegu.

## **Funtsezko baliabide motak:**

### - Finantza baliabideak:

Gure proiektua aurrera eramateko behar dugun kapitala lortzeko bitartekoak dira. Gure kasuan, gure finantza baliabideak Japoniatik inportatutako produktuak dira, gure denda produktu horien salmentan oinarritzen baita. Gauzak ordaintzeko mailegu bat eskatuko dugu, 20000€-ko mailegua. Mailegu hau hilero ordaindu egingo dugu eta gainera bazkide bakoitzak 3000€ jarriko dugu.



### - Giza baliabideak:

Gure enpresako bazkide eta langile guztiak funtsezkoak izango dira enpresaren helburuak lortzeko. Gure kasuan, japoniar kulturari buruzko

ezagutza aurreratua duen pertsonak egongo dira lanean gure denda fisikoan. Horrela, bezeroek dituzten zalantza guztiak argitu ditzakete.

- Baliabide fisikoak:

Enpresaren baliabide guztiak biltzen ditu: lokala\*, ordenagailuak, Wi-Fi,



Japoniako produktuak eta gaming aulkiak.

\*Lokala Bilboko Alde Zaharrean egongo da eta 123m karratu ditu. Gure funtzionamendu egokirako oso aproposa da. Lokala oso zabala da, beraz, leku nahikoa dago ordenagailuak jartzeko eta Japonitik ekarritako figurak eta abar erakusteko. Hori dela eta, otakuen nahiak asetu ahal izango ditugu erraz.

[Idealista](#)

- Baliabide intelektualak:

Egoitzen sormena, Erizek dauzkan informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak eta Diegok dauzkan salmentetarako eta antolaketarako abileziak.

**Banaketa-kanaletarako funtsezko baliabideak:**

Kasu honetan, guk bi banaketa-kanal, denda fisiko bat eta online orri bat izango ditugu. Denda fisikoan errazagoa izango da bezeroekin harreman hurbil bat izatea gurekin. Bestalde, online dendarekin bezeroek gure produktuak erosi eta ikusi ahal izango dituzte edozein unetan, beti prezio hoberenean

**Bezeroekiko harremanetarako funtsezko baliabideak:**

Gure bezeroekiko harremanean pentsatzen badugu, gure negozioak ordenagailuak eta webgune bat beharko ditu. Izan ere, Internet da gaur egun negozio baterako funtsezko baliabide garrantzitsuenetako bat, errazagoa baita bezero gehiagorengana

iristea. Gure Wifi azkarraren bidez, otakuek adrenalinaz beteko dira eta errendimendu oso altua emango dute bideojokuetan. Ondorioz, oso pozik egongo dira irabazteagatik, eta zeharka, gure lokalarekin, eta berriro etorri nahi izango dute.

**Diru-iturrietako funtsezko baliabideak:**

Diru-sarreraren iturrietan ere pentsatu behar dugu funtsezko baliabideak aukeratzeko. Online erosketak egiteko webgune batean, denda fisiko batean eta otakus ekitaldiarako publizitate-elementuetan inbertitu behar dugu (Gamergy, Japan Week...). Ekintza hauek garrantzitsuenak dira gure sektorean, eta publizitate on bati esker (posterrak, bideoak, iragarkiak.. edo gamer ospetsu bat kontratatuz), haien arreta erraz lortuko genuke.